

Pertsonak beharrak dituzte eta hauek asetzeko nahiak zenbait ondasun eta zerbitzu eskuratzen saiatzea dakar. Zerbitzu hauek urriak dira eta ondorioz balio ekonomikoa dute, erosleak horiek lortzeko ordaintzeko prest egongo direlarik.

Ondasun edo zerbitzu batek duen eskariak espresa pribatuei salmenta edo etekin itxaropena sortzen die eta hau izango da jardueraren motorra, etekinak lortzea alegia.

Gure enpresa sortzera eraman gintuen behar nagusia, euskal gazteek uretako hainbat kirol praktikatu ahal izateko dauzkaten zailtasun mordoa izan dira. Rafting-a, ur bizietako piraguismoa, hidrospeed-a... praktikatu nahi badituzte adibidez, ez dago Euskal Herri osoan non jarduna.

Era berean behar hori beste beharren batekin uztartzea egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun eta horrela etekin gehiago lor genezakeela. Hori dela eta merkatuaren ikerketa sakon bat egin genuen.

Merkatuaren eta bezeroen beharren inguruko azterketa hori egin eta gero jakin ahal izan genuen euskal kirolariek aparte badaudela beste bi segmentu, gure hasierako ideiarik egokitzapen batzuk eginda eta hainbat alderdi gehituz, haien beharrak ere ase ditzakegunak.

Segmentu horietako bat gazte abenturazaleek osatzen dutena da, talde handitan, koadrilan, eskolarekin... uretako jarduerak eginez ongi pasatzeko prest daudenak. Aukera egokia iruditu zitzaigun, gure kanaleko ordutegiak egoki antolatzen baditugu, kirola maila altuan eta jarraitasunez praktikatzeko duten kirolariek gure instalazioak erabiltzeaz gain, bestelako aisialdi tardeek ere berauek erabiltzea

Beste segmentua haur txikiak dituzten familiak eta lagun taldeak dira eta beharra egun pasa joan eta bertan bazkaldu, ondo pasa eta naturarekin kontaktuan egon ahal izateko leku apropos bat edukitzea da, ondo egokitua eta egoera ezberdinetara egokitu daitekeena.

Eta oso aukera ona iruditu zitzaigun hiru beharrak batu eta abentura, kirol eta aisialdi txoko bat osatzea, etxetik hurbil eta etorri nahi duenarentzat irekia.

Laburbilduz, gure enpresak asetuko dituen beharrak hiru dira: Ur- bizietan praktikatzen diren kirolak praktikatzeko dituztenei hauek praktikatzeko lekua eskaintzea, kirol hauek probatu eta lagunekin/familiarekin ondo pasa nahi dutenei aukera ematea eta kirola egiteaz gaiz egun pasa haurrekin gustora egoteko leku zabala eskaintzea, mahai, iturri eta beharreko guztiarekin.